

- **Bezeroekiko harremanak**

Gaur egun gure produktua ezagutarazteko eta bezeroen beharrei hobeto erantzun ahal izateko sare sozialak oso garrantzitsuak dira.

Nahiz eta sare sozial ezberdin asko egon, gazte gehienek daukate Instagram edo Twitter konturen bat, beraz hauetan argazki bat igotzean edo publizitatea egitean gure produktua gazteen artean zabaltzea lortuko dugu.

Gure enpresa jakitera emateko noizbehinka zozketaren bat egitea erabaki dugu gure sare sozialetan, honek bezero gehiago erakarriko dituela uste dugulako. Baina zozketak egiteaz gain, oparixtoak ere egingo ditugu; urtean 100 euroko erosketak egin dutenei edota urtebetetze opariak eginez.

Xaboi pertsonalizatuak ere eskaintzen ditugu, adibidez hotelentzat xaboiak hotelaren izenarekin, kirol elkarteentzat xaboi bereziak edo ezkontza opariak.

Gainera gure produktua ezagutarazteko artisau azoketan gure xaboa nola egiten dugun erakutsiko diegu bezeroei.